

BALOREA

Gure produktua besteengaz desberdintzen da punta-puntako teknologia erabiltzen duelako eta berrikuntza handia suposatzen duelako gizartearentzako; izan ere, ura aurrezteko behar berria asetzen du. Adibidez, hamar minutuko dutxa batean 200 litro ur kontsumitzen dira dutxa bakoitzeko, eta gure txorrota irekita igarotzen den minutu bakoitzean 20 litro inguru gastatzen ditugu.

Jakin behar duzu dutxa dela etxe estandar batean ur gehien kontsumitzen duten osagaietako bat. 2050ean 6.000 milioi pertsona inguruk ur-mozketak jasango dituzte. Gaur egun lur planetan bizi den biztanleriaren % 80 da, eta ordurako kalkulaten diren 10.000 milioien % 60. 2050ean, planetako biztanleen erdiek ez dute edateko urik izango. Eta kontsumorako urik ez badago, nekazaritza-ekoizpenerako ere ez da urik egongo —gaur egun erabiltzen den ur gezaren % 70 da—. Ezta energia-industriaren edo abeltzaintza-industriaren garapenerako ere, ezinbestekoak baitira, beste askoren artean, bizitzari eusteko.

Oraindik ez da 2050, eta gutxienez 44 herrialdek ez dute edateko ur nahikorik bertako biztanleak hornitzeko. Horregatik guztiagatik, uraren kontsumoa moderatzen saiatu behar dugu, guztion onerako, baina batez ere, gure ondorengoentzat.

Azken urteetan, uraren urritasuna nahiko nabaria izan da eta horregatik gure produktua arazo horri egiten dio aurre dutxa-sistema berritzaile baten bitartez. Ingurumena zaintzeaz gain, dirua aurrezteko ere balio du; alde batetik, prezioak eskuragarriak izango direlako eta, bestetik, uraren faktura gutxitzeko balio izango duelako. Hau, batez ere, familia ugarietara zuzenduta dago. Eskaintzen dugun dutxa Bluetooth bidezko aplikazio batera konektatuta dago, eta edozein gailutan deskargatu ahal izango da.

Aplikazioak dutxa-denbora kontrolatuko du eta, aldi berean, dutxa bakoitzean zenbat ur gastatzen dugun neurtuko du. Horrela, aplikazioak gastatzen dugun urari buruzko informazioa bilduko du, eta hilean gastatzen dugun batez besteko ura adieraziko digu, gastua murriztu ahal izateko eta, gainera, ura aurreztu eta ingurumenari lagundu ahal izateko.

Bestalde, aplikazioak kronometro bat izango du, dutxan zenbat denbora egon behar dugun adieraziko diguna, eta gomendatutako litroak gainditzen ditugunean abisatuko diguna. Aplikazioa erraz erabil daiteke, eta ez da oztopo izango; aitzitik, bezeroa modu erraz eta eraginkorrean komunikatu ahal izango da bezeroari eskaintzen diogun arretaren bidez (email eta telefono zenbaki bat erabiliko dugu). Gainera, hiri handietan kaseta batzuk jarriko ditugu bezeroaren eta enpresaren arteko harremana hurbilagoa izan dadin. Gure enpresaren garapenerako eta gure burua ezagutarazteko faktore garrantzitsua delako Gure balio-proposamenak behar berri bat sortzen du, nahiz eta gaur egun jende asko ez den jabetzen uraren eskasiak ekarriko duen arazoaz, etorkizunean guztioi eragingo digu.

